

--- PRENTSA OHARRA ---

DEPARTAMENTUAK GAUR PUBLIKATU DUEN DEKRETAZOAREN AURREAN STEE-EILASEN PRENTSA OHARRA

Hezkuntza Departamentuak Gaurko Nafarroako Aldizkari Ofizialean hainbat gai biltzen dituen DEKRETAZOA argitaratu du. Bertan zerbitzu komisioak, leku-aldatze lehiaketak eta Hizkuntzen Irakaskuntza Programak nahasi ditu Gobernuak.

Dekretazo honen aurrean honakoa adierazi nahi du STEE-EILASEk:

1.- Sindikatuoi Mahai Sektorialean aurkeztu zitzaigun momentutik beretik, honelako gaiak ez nahasteko eskatu zuen gure sindikatuak, eta, hiru Dekretu ezberdin egiteko, euren artean zer ikusirik ez duten gaiak baitaude.

2.- Departamentuak Dekretua hirutan banatzeko eskaerari uko egin zion. STEE-EILASEk ez ditu inola ere negoziatu nahi izan Hizkuntzen Irakaskuntzari dagozkion puntuak, aurkeztu ziguten planteamendua erabat onartezina baitzen. Dekretua bertan bera uzteko eskatu genuen. Departamentuaren jarrera ikusita, Mahai Sektoriala utzi genuen gure desadostasuna adierazteko.

3. Konbentzituta gaude dekretu honekin IPP programetarako kontratazio pertsonalaren arautzeko marko juridikoa sortzea dela Hezkuntza Departamentuaren benetako asmoa, hau da, *ad hoc*. Gogoratu behar da kontratazio hauek orain arte indarrean zegoen araudia alde batera utzita egin dituztela. Ildo berean, dekretu honetan sindikaturen batek eskaturiko hainbat puntu sartu bada eta zerbitzu eginkizun batzuen denbora mugaketa eman bada, desbideratzeko asmotan izan dela.

4. Hezkuntza Departamentuak ingelesezko zerrendan dauden eta IPP programetan ingelesezko kotutore bezala gutxienez 20 hilabete lan egin duten irakasle guztiak Haur eta Lehen Hezkuntzako zerrendetan (euskera eta gaztelera) sartuko ditu. Puntu hau oso larria da Haur Hezkuntzan batez ere, kontuan izan behar delako irakaslego honek ez duela adin horretako haurrei klaseak emateko beharrezkoa den gaitasuna. Gainera, orain arte Hezkuntza Departamentuak interinoren kontratazioetan jarritu duen irizpidea apurtu egiten du.

5. Dekretu honek ofizioz 2021. urtera arte C1 mailako akreditazio transitorioa ematen die B2 maila duten irakasleei baldin eta bi baldintza hauek betetzen badituzte: gutxienez 20 hilabetez atzerriko hizkuntzan Haur edo Lehen Hezkuntzako kotutore izan badira edota formazio planetara inskribituta badaude. Honek argi adierazten du Hezkuntza Departamentuaren etsipena IPP programetarako irakasleak aurkitzeko, programa hauetan klaseak emateko maila eskakizuna jaitziz. Honen guztiaren ondorioz programa hauen hezkuntza kalitatea zalantzan eta kolokan jartzen da.

6. Dena den, ongi ikusten dugu ingelesezko behin-behineko funtzionarioek beste hizkuntza perfila duten espezialitatetan behin-betiko destinoa hartu ahal izatea. Gogorazi behar dugu arazoa Departamentuak berak sortu zuela 2011ko LEPn beharrezkoak zirenak baino ingelesezko plaza gehiago eskaini zituela.

7. Honengatik guztiagatik negoziatorik eta akordiorik gabe inposatzen zaigun dekretu honen inposaketa salatzen dugu eta azken 7 urteotan behin eta berriro aldarrikatu dugun bezala Departamentuari IIP programen zabaltzea gelditzeko eskatzen dugu. Era berean, Departamentuak programa hauen inguruko azterketa serio, kritiko eta zehatza egin behar du hedatzen jarraitu baino lehen ez baitu hezkuntza maila egokia duen behar adina irakasle kalitate hezkuntza bermatzeko.